

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ETA HIZKUNTZA NORMALKUNTZA, BERGARATIK BEGIRATUTA

Estepan Plazaola Otadui

Bergarako Udaleko Euskara zerbitziburua
Helbide elektronikoa: eplazaola@bergara.net

1. SARRERA: GAIA MUGATZEN

Ez dakit "Eskola orduz kanpoko jarduerak" kontzeptuak baduen definizio zehatz erabatekorik. Edozein kasutan ere, gaiaren gaineko lanak ikusita badirudi honelatsukoa izan litekeela: "eskola adinean dauden herritarrek, eskola orduz kanpo, parte hartzen duten jarduera antolatua". Kanpo geratzen da, beraz, norbere kasa egiten den jarduera antolatu gabea.

Jarduera horietan zentratuko dut, beraz, nire artikulua, eta bereziki, Bergarako errealitatea oinarri hartuta.

2. ESPARRUAK HIZKUNTZAREN ALDETIK DUEN GARRANTZIA

Batetik bestera alde dezenteak izango badira ere, oro har, ia eskolan bertan adina denbora ematen omen dute ikasleek eskola orduz kanpoko jardueretan. Amonarriz, Arruti eta Osak aldizkari honen 51. alean argitaratutako artikulua batean eskolari esna-orduen %14 ematen diote eta eskola orduz kanpoko jardueri % 13.

Baina hartzen duten ordu kopuruaz gain, badituzte jarduerok hizkuntzaren ikuspegitik oso kontuan hartu beharrekotzat bihurtzen dituzten beste zenbait ezaugarri. Hona hemen goian aipatutako artikuluan bertan jasotzen direnak:

- *Esparru egituratua da, eta eragiteko aukera oso egokiak zabaltzen ditu.*
- *Harremanaren edukia nahiko indartsua da, jarduera ludikoa (gustagarria) izan ohi da gehienetan (prestakuntzazkoa ere bai sarri).*
- *Hizkera sektorialak eta erreperitorio jakinak erabiltzen dira (formalak edota kolokialak).*
- *Ikasleen arteko harremanak ikastetxe barrukoak baino libreagoak dira.*
- *Esparru horietan eraginda, gure eragin ahalmenetik kanpo dauden esparruetara zabal daiteke euskara erabiltzeko joera (koadrilak, kaleko giroa, etab.)*

Beraz, bai kopuruz eta bai nolakotasunez oso kontuan hartu beharrekoko esparrua dirudi.

Baina, badugu beste arrazoi bat ezin utzizko bihurtzen duena: eskolak berak bakarrik ezin duela.

Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II) izeneko artikulua interesgarrian (Jauregi, 2003) ikus liteke ikasleek hizkuntza bereganatzeko izan ohi dituzten bide nagusien (etxea eta eskola) eta lortzen duten gaitasunaren eta erabileraren arteko erlazioa.

Gizarteratze eremuaren, gaitasunaren, eta erabileraren arteko kateamendua

	Gizarteratze eremu batean hazitakoak	Euskarazko gaitasun oso ona	Euskara erabili ohi du
Ama eta eskola	100	97.0	76.4
Ama soilik	100	50.0	25.0
Eskola soilik	100	30.0	20.0
Ez bata ez bestea taxuz	100	7.1	2.4
P. Jauregi: Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II)			

Taulak argi erakusten digu ikasketa-bide bakartzat eskola izan dute-netatik %30a soilik iristen dela euskara maila ona (euskara erabiltzea bermatzeko adinakoa) izatera.

Etxean jaso ez duten gazteek euskara erabil dezaten hura osatzeko duten beharraz horrela dio Jauregik:

“Gure irudikoz euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarte multzo handiek eskolaz gain ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalean batean, talde hori familia izan

Batetik bestera alde dezenteak izango badira ere, oro har, ia eskolan bertan adina denbora ematen omen dute ikasleek eskola orduz kanpoko jardueretan. Amonarriz, Arruti eta Osak aldizkari honen 51. alean argitaratutako artikulua batean eskolari esna-orduen %14 ematen diote eta eskola orduz kanpoko jarduereri % 13.

"Gure irudikoz euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarte multzo handiek eskolaz gain ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalen batean, talde hori familia izan edo sare horizontaleko talderen bat izan. Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohitura".

edo sare horizontaleko talderen bat izan. Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohitura".

Baina zenbatek dute etxea eskolaren osagarri, Bergaran bertan ere, biztanleen %70 euskalduna izanik? Udaleko Euskara Zerbitzuak berak 2006an egindako galdeketa bateko emaitzek honakoa agertzen digute¹:

	Bi gurasoak euskaraz ondo dakitenak	Gurasoen artean euskaraz	Amak umeari euskaraz
2004an jaiotako umeen etxeetan	%51	%27	%66
13 urteko umeen etxeetan	%35	%22	%42

Garbi ikusten da, beraz, gaur gaurkoz etxearen ekarpenak muga dezenteak dituela.

Beraz, Jauregik esaten duenari jarraiki, ahaleginak egin beharko dira, alde batetik, familia transmisioan eragiteko, eta, jakinik hor eragitea zailago dela, umearen bizitzako gainontzeko guneetan jarri beharko ditugu indarrak.

3. ESKOLA ORDUZ KANPOKO JARDUERAK, SAILKA

Asko eta askotarikoak dira herrietan eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dituzten entitateak eta baita entitateok antolatu ohi dituzten ekin-tzak ere.

Eurretan eragin ahal izateko, ezinbestekoa da nolabaiteko sailkapen bat egitea: beharrak identifikatzeko, laguntzabideak zehazteko, lehentasunak markatzeko... Eta era askotara sailka genitzake:

- Sailka genitzake gaika: kirola, kultura, aisia, erlijioa... Izan ere izango ditu gai bakoitzak bere berezitasunak.
- Sailka genitzake, era berean, beste irizpide honen arabera ere, alegia, zenbateraino diren ekintza oso zuzenduak edo libreak. Ez dira, adibidez, gauza bera, aisialdi taldeko ekintza eta katekesi saioa.
- Edo beste hainbat irizpideren arabera: jardueren iraupena (ikasturte osokoak, ekintza puntualak...), ordainketa (doanekoak, ordainduak)...

Hala ere, udalaren ikuspegitik, iruditzen zaigu egokiena izango litzatekeela, jarduerak antolatzaileek udalarekin duten loturaren arabera sailkatzea horren baitan egongo baita, neurri batean, Udalak entitateotan eragiteko izango duen ahalmena. Hona hemen balizko sailkapena:

a) Udalak berak edo Udalak subkontratutako enpresek antolatutako jarduerak. Era honetakoak ditugu, abibidez, gure kasuan, eskola-kirola, ludoteka, Udaleku Irekiak, Gabonetako jolas-parkea, Udalak antolatzen dituen hainbat kirol eta kultura ikastaro...

Berezitasuntzat nabarmenduko genuke, saioa bideratzen duten entrenatzaile, monitore, irakasleak... kasu guztietan kontratu bat izango dutela eta, ondorioz, ordainduta daudela.

b) Udalak diruz lagundutako entitateek antolatutako jarduerak. Multzo honetakoak ditugu, adibidez, herriko kultura, aisia, kirol zein erlijio arloko irabazi asmorik gabeko hainbat elkartek antolatutako jarduerak: aisialdiko ekintzak, dantza-ikastaroak, musika-ikasketak, entrenamenduak, katekesiak... Talde hauetako entrenatzaile, monitore eta irakasleek ez dute askotan kontraturik izango eta hainbatetan diru-saririk barik jardungo dute.

c) Udaletik laguntzarik jasotzen ez duten enpresek antolatutako jarduerak. Hemen izango genituzke irabazi asmoa duten hainbat enpresa: gimnasioak, hizkuntza-akademiak, bestelako akademiak...

Talde hauetako irakasle, monitore eta entrenatzaileak ere soldatapekoak izango dira.

4. ZERTAN ERAGIN

Elkartek hizkuntza jardun zabala dute: barruko funtzionamendu administratiboarekin lotua, irudi-korporatiboa, kanpo-komunikazioa... Eta ez da hori ere albora uztekoa. Hala ere, ikaslearen hizkuntza gaitasuna eta erabilera indartzearen ikuspegitik, zalantzarik barik, garrantzitsuena, jardueraren beraren hizkuntza dugu.

Eta Amonarriz, Arruti eta Osaren artikuluan jaso bezala, garrantzitsua "euskaraz ahalik eta gehien eta ahalik eta ondoen egitea" da. Beraz, garrantzi berezikoa izango da, begirale, entrenatzaile, irakasle eta abarrek euskara maila ona izatea eta euskaraz egitea eta ahal duten neurrian eragitea.

Oinarritzko betebeharra, erakunde-erabilera bermatzea izango dugu: entrenatzaileak, begiraleak... ume eta gazteei euskaraz egitea. Hurrengo urratsa, berriz, norbanako erabileran eragitea: ikasleen arteko erabileran, entrenatzaileek beren artean erabiltzen duten hizkuntzan...

5. NOLA EGIN/ERAGIN

Hainbat bide izan ditzake Udalak eremu honetan jarduteko:

- **Arau bidez.** Esaterako diru-laguntzak jasotzeko hizkuntza-betebehar batzuk ezarri.
- **Lankidetzak-hitzarmenen bidez.** Hitzarmena lankidetzarako eta dinamizaziorako markoa.

Elkartek hizkuntza jardun zabala dute: barruko funtzionamendu administratiboarekin lotua, irudi-korporatiboa, kanpo-komunikazioa... Eta ez da hori ere albora uztekoa. Hala ere, ikaslearen hizkuntza gaitasuna eta erabilera indartzearen ikuspegitik, zalantzarik barik, garrantzitsuena, jardueraren beraren hizkuntza dugu.

Oinarrizko betebeharra, erakunde-erabilera bermatzea izango dugu: entrenatzaileak, begiraleak... ume eta gazteei euskaraz egitea. Hurrengo urratsa, berriz, norbanako erabileran eragitea: ikasleen arteko erabileran, entrenatzaileek beren artean erabiltzen duten hizkuntzan...

– **Laguntza eta zerbitzu solteak eskainiz:** itzulpenak, zuzenketak, dirulaguntzak...

Eta ekintzen antolatzaileen arabera, eragin-bide bat edo beste erabiliko ditugu:

a) Udalak berak edo Udalak subkontratutako enpresak antolatutako jardueretan. 86/1997 Dekretuak² honakoa dio 18. atalean:

18. atala.– Entitate bakoitzak 17. atalean ezarritako normalizazio-helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntz politika eta bere nondik norako eta jarraibide nagusiak agertuko dira euskararen erabilera normalizatzeko planetan. Bertan, gutxienez, honako hauek jasoko dira: (...)

d) kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen.

Begarako Udalaren kasuan finkatuak ditugu kontratazioetarako irizpideak eta bertan zehaztuta daude eskolaz kanpoko jarduerak eskaintzeko kontratatuko direnek izan beharreko euskara mailak (oro har, 3. Hizkuntza eskakizunaren parekoa) eta erabili beharreko hizkuntza: 16 urtez azpikoentzako ekintzak euskaraz.

Kasu hauetan oso inportantea izango da gero pertsona horiek hizkuntza eredu egokia eskaintzearen eta eragile izatearen ikuspegitik duten garrantziaz jabetzea. Udalaren egiteko garrantzitsuetako bat izango da, beraz, jende horri behar den formazioa eskaintzea, jarraipena egitea, motibatzea, lagungarriak eskaintzea...

b) Udalak diruz lagundutako entitateek antolatutako jarduerak. Bergarako Udalak bi bide erabili ditu nagusiki arlo honetan:

– Araitzea. Dirulaguntzak emateko baldintzen artean hizkuntza erabileraren gainekoak jarri izan dira: bai idatzizko eta bai ahozko komunikazioetan, euskaraz edo euskarari lehentasuna emanez jardutea eta adin batetik (16 urteko erreferentzia izan dugu orain arte) azpirakoei eskaintzen zaizkien edukiak euskaraz izatea. Hala ere, egia esanda, gero ez dira baldintzok estu-estu betearazi izan. Eta pentsatzen dut multzo honetako taldeentzat bide egokiagoa dela elkarlana jorratzea.

– Hitzarmena. 1991n *Euskara Gazteena* kanpainaren barruan, sinatu zuen lehenengo aldiz Bergarako Udalak kultura, kirol, aisia... elkarrekin euskara sustatzeko hitzarmena. Hitzarmena 1995ean berritu zen eta 1998az geroztik ez zuen jarraipenik izan, Udalak beste arlo batzuei heldu zielako. Esan beharra dugu, oro har, oso emaitza posi-

tiboak eman zituela bere garaian.

Une honetan Udalak hitzarmen hau berriz abian jartzeko lanean dihardu: dagoeneko taldeen egoeraren gaineko informazioa jaso da, hitzarmen ereduak ere finkatu da eta ekain aldera edo hitzarmena indarrean izatea espero dugu.

Taldeei proposatzen ari gatzazkien hitzarmena lankidetzarako marko malgu bat izango da eta bertan Udalak elkarteari hizkuntza normal-kuntzarekiko konpromiso batzuk hartzea eskatzen dio eta, aldi berean, hainbat lagungarri eskaintzen dizkio.

Elkarrekin hartuko dituzten konpromisoen artean, nabarmena honakoa: ordezkeri bat izendatzea, udaleko teknikariarekin batera elkartearen normalizazio-lanaren jarraipenaz eta dinamizazioaz arduratzeko. Hala, finkatutako marko horren barruan elkarte bakoitzarekin batera aztertuko da, beraz, gaitasunean, antolatzen dituzten jardueretan, irudi korporatiboan, kanpo eta barruko komunikazioan... urratsak emateko modua.

Udalak, bere aldetik, jarraipen eta dinamizazio lanaz gain, hainbat eratako laguntzak eskainiko dizkie:

- **Euskarazko baliabide eta materialak:** softwarea, entrenatzaileen-tzako fitxa didaktikoak, idatzi-ereduak...
- **Zuzenketa eta itzulpenak.** Esan beharra dago, edozein kasutan, helburua elkarteek berek euskaraz funtzionatzea denez, itzulpena salbuespeneko kasuetan baino ez dela erabiliko.
- **Prestakuntza-saioak eta dirulaguntzak.** Kasu batzuetan udalak berak zuzenean antolatuta edo beste batzuetan (begirale eta monitorentzako ikastaroak) elkarteak antolatu eta udalak diruz lagundu.

c) Udaletik laguntzarik jasotzen ez duten enpresek antolatutako jarduerak.

Bezeroen eskaria da, zalantzarik barik, irabazi asmoa duen entitate batean eragiteko biderik garrantzitsuena. Hala, gaur egun apenas egongo da Bergaran eskola partikularrik gaztelaniaz. Ikasleek ikasketak euskaraz egiten dituztenez, ikasketa osagarriak ere euskaraz behar dituzte. Baina, tamalez, eskari hori apaldu egiten da jarduera ludikoetan eta gurasoek ez diote hizkuntzari aparteko garrantzirik ematen umeak karatean edo pintura akademian apuntatzerakoan.

Eskaera hori suspertzea izan beharko du, beraz, Udalaren egiteko nagusi bat herritarrak jarduerok euskaraz bideratzeak duen garrantziaz sentiberatuz.

Gainontzean Udalak entitateari begira izango dituen bide nagusiak hitzarmena eta laguntzak izango genituzke. Beraz, elkarte hauei ere zabaldu zaie irabazi asmorik gabeko elkartei eskaini zaizkien hitzarmenaren bidea.

Bezeroen eskaria da, zalantzarik barik, irabazi asmoa duen entitate batean eragiteko biderik garrantzitsuena. Hala, gaur egun apenas egongo da Bergaran eskola partikularrik gaztelaniaz. Ikasleek ikasketak euskaraz egiten dituztenez, ikasketa osagarriak ere euskaraz behar dituzte. Baina, tamalez, eskari hori apaldu egiten da jarduera ludikoetan eta gurasoek ez diote hizkuntzari aparteko garrantzirik ematen umeak karatean edo pintura akademian apuntatzerakoan.

*Aisialdi eta kultura
kutsuko jarduera
antolatuak krisian
daudelako susmoa dut.
Ahalegin handia egin
arren kosta egiten da,
batez ere nerabe eta
gazte-jendea halako
ekintzetara erakartzea.
Adin batetik gorako gazte
askok beren lagunarteko
lokalak dituzte. Horietan
eragiteko bideak ere
aztertu beharko lirateke.*

6. KOORDINAZIORAKO EGITURAK

Esan bezala, asko dira eskola orduz kanpoko munduan lanean diharduten agenteak, baita Udalean bertan ere. Hori dela eta, behar-beharrezkoa da horien lanak koordinatzea. Une honetan, Bergaran honako egiturak daude zuzenean edo zeharka eskola orduz kanpoko jarduerak antolatzen edo koordinatzen:

a) Euskararen Hitzarmeneko jarraipen batzordea. Euskararen Aholku batzordearen azpitalde bat da. Esparru soziokulturalean une honetan abian jarri nahi den hitzarmenaren gaineko gaiak lantzen ditu. Hitzarmenak hartzen dituen esparruetako (kultura, kirola, aisia, erlijioa...) ordezkariak eta udal-teknikariak hartzen dute bertan parte.

b) EBPnko irakaskuntzako azpibatzerdea. Herriko ikastetxeetako ordezkariak, euskaltegiakoeak, Jardun euskara elkarteak, Berritzeguneak, Udaleko hezkuntza teknikariak... hartzen dute parte. Irakaskuntzako hizkuntza normalkuntza programetako zenbait gai lantzen dira, bereziki, haur eta gazteen ahozko jarduna hobetzea helburu duen Gehixago eta Hobeto programa (Urbe, 2000).

c) Kirola Euskaraz programa. Debarroko Euskara eta Kirol teknikariak dira batzorde honetako partaideak eta hiru arlotan jarduten dute: entrenatzaile eta monitorentzako materialgintza, entrenatzaile eta monitorentzako formazioa, sentiberatzea.

d) Gazteria batzordea. Udaleko zenbait zerbitzutako ordezkariak bil-tzen dira Gazteria batzordean eta, bereziki, gazteentzako aisiako ekintzak (lehiaketak, irteerak, ikastaro laburrak...) antolatzen ditu. EBPnren barruan esparru soziokulturalaz arduratzen den teknikariak hartzen du bertan parte.

7. GOGOETA OROKORRA ETA ZENBAIT KONTSIDERAZIO

Hona hemen, bukatzeko, gaiaren gaineko hiruzpalau gogoeta-puntu:

– Pentsatzen dut inportantea dela guraso, irakasle, entrenatzaile eta abarri ondo transmititzea eskola-orduz kanpoko jarduerak euskaraz egiteak eskainiko dizkien onurak, alegia, umeek euskaraz hitz egiteko gaitasun hobea izango dutela eta hori eskolarako ere mesedegarri izango zaiela.

– Bergaran orain dela urte asko ekin genion euskara maila apaleko ikasleei (garai hartan, batez ere B eredukoei) eskola orduz kanpo hizkuntza indargarri bereziak eskaintzeari. Jatorriz herrikoak direnen artean, multzo hori nabarmen txikitu bada ere, oraindik jarraitzen dugu horientzako indargarriak antolatzen eta, une honetan pisu handia hartu duen multzoa etorkinena da. Tratamendu eta arreta berezia behar duten kolektiboak dira.

– Aisialdi eta kultura kutsuko jarduera antolatuak krisian daudelako susmoa dut. Ahalegin handia egin arren kosta egiten da, batez ere nerabe eta gazte-jendea halako ekintzetara erakartzea. Adin batetik gorako gazte askok beren lagunarteko lokalak dituzte. Horietan eragiteko bideak ere aztertu beharko lirateke.

– Lagunarteko hizkera, argota... lantzeko ekimen berritzaile indartsuak falta zaizkigu. Uste dut horretan protagonismo berezia izan dezaketela teknologia berriek eta hedabide lokalek, bereziki, denbora gutxi barru eskualde guztietan zabalduko diren tokiko telebistek. Hainbat eskualdetan bizpahiru tokiko telebista berri izango ditugu hemendik gutxira. Horien inguruan, euskarazko aisialdi-molde partehartzaile eta hizkuntzaren aldetik aberatsak antolatzeke gai bagara oso aukera interesgarria eskainiko digute; bestela, euskararen ikuspegitik, mehatxu sendoa izan litezke.■

BIBLIOGRAFIA

Amonarriz, K.; Arruti, I.; Osa, E. (2004): "Ahozketasuna eremu ez-kurrikularrean hizkuntz proiektuaren markoan" in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 51. alea, 137-156 or. Sei, Andoain.

Eusko Jaurlaritz (1991): *Eskola hiztun bila*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Vitoria-Gasteiz.

Urbe, A. (koordinatzailea). (2000): *Gazte-ak eta euskara*. Xangorin, Lasarte-Oria.

Egizabal, D.; Huegun, A. eta Jauregi, P. (2004): "Kuadrillategi egitasmoa" in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 53. alea, 103-111 or. Sei, Andoain.

Jauregi, P. (2003): "Euskara eta gazteak Lasarte-Oria (II)" in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 47. alea, 139-148 or. Sei, Andoain.

Suberbiola, P. (2004): "Euskararen erabileran nondik eragin? Zenbait gogoeta" in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 53. alea, 53-66. or. Sei, Andoain.

OHARRAK

1. Berez, bi galdeketatako emaitzak dira: lehenengoa 2006-07 ikasturtean lehenengo aldiz matrikulatutako umeen gurasoei pasatutakoa eta bigarrena, DBH-2ko ikasleei pasatutako inkesta batekoak.

2. 86/1997 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarte herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeke prozesua arautuko duena.